



Aldundiaren aurreproiektuaren aurka mila alegazio Andoainen

1022 andoaindarren alegazioak aurkeztu ditu Andoaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolamenduko sailak zerbitzu publikoko autobusen kontzesiorako irizpide berriak zehaztu dituenetik, eskualdeko Udalak aurka agertu dira. Bereziki, **G2** (Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia), **G3** (Andoain-Ospitaleak) eta **G4** (Urnietan-Hernani-Donostia gauekoa) bus lineetarako proposamen berriekin. Funtsean, astean zehar eta asteburuetan maiztasuna murriztea proposatzen dute. Herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izan dute urriaren 23ra bitarte, eta bistan da andoaindarrak ez direla eskuak gurutzatuta geratu. Denera, 1022 herritarrek aurkeztu dituzte alegazioak. Oso kontuan hartzeko kopurua, beraz.



Herritarrek alegazioak aurkezteko aukera izan dute urriaren 23ra bitarte. Milatik gora herritarrek aurkeztu dituzte.

UDALAK ELKARLANERAKO DEIA LUZATU DU

Andoaingo Udalak, ohar bidez, elkarlanerako deia luzatu dio Foru Aldundiari: "Elkarlanean egindako proiektu berri bat

martxan jartzeko unea da, herritarren beharrak kontuan hartuko dituen eta murrizketarik gabeko zerbitzu bat eskainiko duena. Ostegun honetako plenoan (19:00etan) gaia jorratu-

ko dugu, udal talde ezberdinek hainbat mozio tartekatuta dituztelako. Gaiarekin kezkatuta dauden herritarrei plenoa bertatik bertara jarraitzeko dei egiten diegu".

Andoaingo herri galdeketa azken txanpan murgiltzen ari da

Azaroaren 5ean herritarrek botoa emateko aukera izango dute.

Gure Esku Dago ekimenarekin elkarlanean, **Andoain Esan** herri ekimena azaroaren 5eko herri galdeketa prestatzen ari da. Larunbat honetan giza-katea deitu dute, Goikoplazatik eguerdiko 12:00etan abiatuko dena. Buruhandiak edota talo jatea iragarri dituzte, ekitaldi berean. Eta datorren asterako solasaldia, hitzaldia eta mahai-ingurua Bastero kulturgunean.

[ANDOAIN, 6-7. ORR.]



Andoaindarrak aste honetan hautes botoak jaso dituzte etxean. Banaketaren prestateta lanak auzolanean egin dituzte.

Odol-emaileen festa Urnietan



Odol-emaileen elkarteak urteko ospakizuna egingo du igande honetan, Oianume sagardotegian. Bertan, odol-emaile bereziak omenduko dituzte. Egitaraua:

13:15 Harrera.

13:30 Domina eta garaikurren banaketa.

14:30 Bazkaria.

[ANDOAIN, 6-7. ORR.]

Rocka puntua! Irazuren liburua



Alberto Irazu andoaindarrak 'Rocka puntua' liburua aurkeztu zuen Donostian, joan zen ostegunean. Angel Mari Irigarai, Joxerra Gartzia eta Andoni Egaña izan zituen ondoan.

[ANDOAIN, 8-9. ORR.]

Diva saria Aian

Duela 55 urte Tolosako zezen plazan **Juan Iguaran** eta **Martin Lizeaga** urnietarren arteko apustu sonatuan erabilitako bi harriak jaso zituzten, Aian.

[KIROL ALBISTEAK, 10. ORR.]

HERRI KIROLAK

Urnietako 1962ko desafioa Aian biziberritu zuten

Joan zen igandean Diva harri txapelketa ospatu zuten Aiako idi-proben plaza estalian, 220 ikusleren aurrean. Txapelketa honen bezitasuna izan zen, duela 55 urte Tolosako zezen plazan Juan Iguaran eta Martin Lizeaga urnietarren arteko apustu sonatuan erabilitako bi harriak erabili zituztela parte hartzaile izan ziren bederatzi harri-jasotzaileek.

ran eta Martin Lizeaga urnietarren arteko apustu sonatuan erabilitako bi harriak erabili zituztela parte hartzaile izan ziren bederatzi harri-jasotzaileek.



Bederatzi parte hartzaileak, antolakuntza arduradunak eta 1962an protagonista izandako Juan Iguaran eta Martin Lizeaga.

Euriari aurre eginez, sarrera polita jaso zuen Aiako idi-proba plazak, eta ingeles puntualitatearekin hasiera eman zitzaion norgehiakokari. Lehenik, duela 55 urteko desafioren berri eman zitzaizen bertaraturakoei. Juanek eta Martinek, lehen txalo zaparrada jaso zuten.

Zozketak erabakitako ordenean, lanean hasi ziren harri-jasotzaileak, aurrena hiru minutuko txanda egin zuten **Juan Iguaranen** harriarekin, eta ondoren, beste hiru minutuko bana **Martin Lizeagaren** harriarekin.

Lehenengo txandan, bi harri-jasotzaile nabarmendu ziren beste guztien gainetik, **Mikel Lopetegi** zarauztarra 27 jasoaldiarekin, eta **Aimar Irigoien** errezil-darra 28rekin. Bigarren txandan, Mikelek 28 altxaldi eman bazizkion ere, Aimarrek berriro ere aurea hartu zion, bere lehen txandako marka hobetu baitzuen 29 jasoaldi emanez **Martin Lizeagaren** harriari.

Aipamen berezia merezi du te, azken bi sailkatuek. Avilatik etorri zen **Julio Jimenezek** eta Bizkaian bizi den jatorri britaniarreko **Jhon Meter Scou-**



Aimar Irigoien, lanean.

tek. Ez dute besteen teknika-rik, baina egin zuten ahalegina eskertu zuen publikoak bere txalo eta oiheroekin.

Txapelketaren amaieran, Aimarrek jaso zuen merezitako txapela, 57 altxaldi egin ondoren. Baina sari-banaketa ekitaldiaren aurretik, antolakuntzak eta harri-jasotzaileek, bere presentzia aprobetxatuz, omenaldi xume bat eskaintzeko baliatu zuten, herri kirolen alde hurrenbeste egiten duen **Juan Iguaran** urnietarrari. Antolatzaileren plaka bat jaso zuen Juanek, **Maria Jesus** emazteak, lore sorta bat jasotzen zuen bi-

tartean, eta **Millan Telleria** bertsolariak bertso bat eskaini zion. Ondoren, **Joseba Ostolaza** harri-jasotzailearen eskutik euskal makila dotorea jaso zuen.

Lagun arteko giroan bukatu zen ekitaldia, bederatzi harri-jasotzaileek, Juan Iguaran eta Martin Lizeaga, eta hauen bi harriak aurrean zituztela egingo talde-argazkiarekin.

55 urteren ondoren harriei "hautsa kendu" zieten igandean, ikustear dago egun bateko kontua izan den edo txapelketa honek jarraipenik izango ote duen.

AIMAR IRIGOIEN TXAPELDUN



Juan Iguaranek eta Martin Lizeagak duela 55 urte jokatu zuten apustuan erabilitako harriak jaso zituzten Aiako probalekuan.

Denbora:

3 minutuko txandak.

Harriak:

10 arroako zilindro bereziak, biak 125 kilokoak.

Argazkiak: Ibon Errazu.**Sailkapena:**

1. Aimar Irigoien, 57 altxaldi.
2. Mikel Lopetegi Urrea, 55.
3. Imanol Albisu, 45.
4. J.M.Iruretagoiena Izeta III.a, 44.
5. Aimar Galarraga, 43.
6. Xabier Peñagarikano, 40.
7. Gorka Etxeberria, 29.
8. Julio Jimenez, 27.
9. Jon Peter Scott, 18.

OMENALDIA



Antolatzaileren esker-ono omenaldia jaso zuen Juan Iguaranek. Plaka bat Juanek, lore sorta Maria Jesus emazteak eta Millan Telleriak eskainitako bertsoa.

ESKUALDEKO ETA GIPUZKOAKO HAINBAT TOKIKO ODO-EMAILEEN BILKURA OIANUMEN

Odol-emaileen bilkura igande honetan

Urnietako delegazioak antolatuko du aurtengo odol-emaileen bilkura eta Oianumen bertan Aia, Amasa-Villabona, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Her-

nani, Ibarra, Irura, Lasarte-Oria, Orio, Tolosa eta Usurbilgo delegazioak bilduko dira. Ohi bezala, hainbat aldiz odola eman dutenei egingo zaio aipamena.

Odola ematea erraza da, eta emaileari ez zaio denbora askorik eskatzen. Elkartasun keinu horrek biziak salbatzen ditu, horregatik da elkartasun keinu hori hain garrantzitsua. Odol-emaile askok errepikatu egiten dute, eta urteen poderioz 25, 40 edota 50 aldiz odola ematera irits daitezke. Urtean behin odol-emaileek lagunarteko bazkaria egiten dute, hainbat kide omentzeko baliatzen dutenak.

Iaz, Andoaingo odol-emaileek hartu zuten jaia antolatzeke ardura eta aurtengo urnietarrei iritsi zaie txanda. Urte berezia izaten ari da Urnietako taldearentzat. 33 urteko ibilbidea osatu dute eta aurtengo jaietan txupinazoa botatzeko ohorea eskaini zieten. Izaskun Miner eta Manoli Sorondo igo ziren udaletxeko balkoira, Urnietako taldearen izenean, eskerona adierazi eta txupina botatzera.

Egun hauetan igandeko ospakizuna prestatzeko lanean



Iaz diploma edo garaikurra jaso zuten Urnietako odol-emaileak.

ari dira, buru-belarri. Dozenaka lagun elkartuko dira, guztiak ere odola ematearen elkartasun keinu txiki hori eragingo da. 13:15ean hasiko da ospakizuna, harrera ekitaldiarekin. Bazkariarekin osatuko dute ospakizun kutsuko eguna.

EGITARAUA URRIAK 29, IGANDEA

13:15 Odol-emailei harrera eta agurra Oianumen.

13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.

14:30 Bazkaria Oianume jate-txean bertan.

NABARMENDUKO DITUZTENAK

Urnietako: Ana Jesus Salsamendi Berta do Santos, Jose Miguel Ruiz, Jose Ignacio Rodriguez.

Andoain: Juan Jose Ezkiaga, Beatriz Bravo, Jesus Maria Hernandez, Eugenia Montero, Pablo Hernaez.

Beldurrezko etxea

Datorren azaroaren 3an, ostiralarekin, Lekaio beldurrezko etxe bilakatuko dute. Gaztelekuak antolatutako ekitaldia da, 10-16 urte bitartekoentzat. Ekitaldia 18:00etan hasiko da, iluntzeko 20:00ak arte. Izena eman beharra dago urriaren 30a baino lehen, Gaztelekuan bertan.

Sagardo dastaketa

Joan zen larunbatean Heraniko Xalaparta elkarteak aurtengo sagardo lehia-keketako sagardo onenaren txapelketaren XXIII. edizioa antolatu zuten. Txapelak Oialume-Zar sagardotegiari eman zitoten. Bigarren saria Urnietako Setieni, eta hirugarrena Hernaniko Altzuetari.

Oroimenaren bulegoa

Azaroaren 3ra bitarte martxan egongo da, Udal artxibategian. Bertan urnietarrek 1936 eta 1945 urte bitartean errepresaliak jasane zituzten edo kanporatuak izan ziren senide edo pertsonen inguruko informazioa eskuratu edo eman ahal izango dute.

Erakide egitasmoa

Aldundiak eta Beterri-Buruntzako Udal ordezkariak, erantzunkidetasun sozialaren kontzeptua bultzatu eta praktikan jartzeko Erakide egitasmoa aurkeztu dute. Guztiak ere xede berdina dute: Enpresen errotzea bultzatzea, berdintasuna eta parte-hartzea bezalako balioetan oinarritutako enpresa-ereduak bultzatuz, beti ere pertsonak enpresa proiektuaren erdigunean kokatzea lagunduz.



Azaroaren amaieran Urnietan bertan odola emateko aukera izango da anbulatorio zaharrean. Zehazki azaroaren 30ean, ostegunarekin, 18:30etik 20:30era.



33 urtez odol-ematea antolatu duen taldetxoa omendu zuten aurtengo Sanmieletan. Irudian, Manoli Sorondo eta Izaskun Miner odol-emaileen taldeko kideetako bi.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

HOGAR EXTREMEÑO ELKARTEAREN OSPAKIZUNA

Herrien eguna, ikusle gehiagoren aurrean

Herrien egunaren XXI. edizioa ospatu zuten joan zen larunbatean, Zumea plazan. Kultura, folklorea eta gastronomia nagusi izan ziren egun osoan zehar.

Nafarroa plazan egin izan dira aurreko edizio guztiak, eta aurtengoan kokagunea aldatu izanak jaiari on egin diola esan daiteke, jendetza bildu baitzen eguerdian nahiz arratsaldean.



Sevillanak ikusteko aukera izan zen larunbatean, Zumea plazako ospakizunean.



Urki dantza taldeak euskal folklorea ordezkatu zuen.



Gora Kaletxiki Band taldeko kideak hamaiketakoia egiten, saioen arteko atseden unean.



Hogar Extremeño elkarteko hainbat kide lanean aritu zen.



Eguerdian postu ezberdinetara jende asko hurbildu zen, baita Udal ordezkariak ere.



Arratsaldeko saioen dozenaka ikusle hurbildu zen Zumea plazara. Argazki gehiago aiurri.eus gunean.

Lapurreta jasan du Burdinak, Martin Ugalde kaleko egoitzan

Burdina elkarte aurrera, oztopoen gainetik

Lapurreta jasan du Burdina taldeak, Martin Ugalde kalean daukan egoitzan. Sastraka kentzeko hiru makina, hiru motozerra eta moto-bonba bat ostu dizkiote taldeari Andoaingo Udalak utzitako egoitzan. Une honetan, lanean jarduteko tresneriarik gabe daude kideak. “2000. urtean Burdina sortu eta lanean hasi ginenean bezala gaude, aitzurra eta pala eskuetan, besterik gabe” adierazi dute kideek, sentitzen duten atsekabea eta amorrua umore pixka batekin arindu nahian bezala.

Egun zailak bizi dituzten honetan, Burdina taldeko boluntarioek deialdi berezia luzatu diete eskualdeko lantegiei, premiazkoa duten tresneria eskura jarri diezaieten horretarako aukera edukiz gero.

Oztopoak oztopo, taldeak borondate irmoa agertu du orain arte bezala jarraitzeko, ondore historikoa berreskuratze eta argitaratze lanetan. Jarrera baikor horren lekuko da azken aldian burutzen ari den dinamika gerezina.

ORTZAIKAKO KAROBIAREN PIZTEA

Karobi baten pizte prozesua bizi-bizian ikusi nahi duenak aukera polita izango du Andoaingen bertan, datorren azaroaren 4an. Larunbat horretan hasiko dira egurra eta kareharrira lantzen Goiburu bailaran, eta hurrengo egunean karea sortuko dute. Andoaingo ikastetxe, elkarte, eta, oro har herritar guztiei gonbitea luzatu



diote, larunbatean nahiz igande bertara daitezten.

PAGAMENDIKO GOTORLEKUA

Pagamendiko gotorleku karlista berreskuratzeko asmoz, ingurua txukuntzen aritu ziren joan zen uztailean, Andoaingo Udalaren laguntzarekin. Bigarren faseari ekin zioten abuztuan, indusketa lanak eginenez Alfredo Moraza arkeologoaren ardurapean. Hirugarren eta azken faseari heltzea falta zaie, dibulgazioari dago-kiona alegia. Gotorleku horren inguruko azalpen guztiak herritarren esku uztea da Burdinaren helburu nagusia une honetan, eta informazio panela ipini eta bisita gidatuak antolatzeari pentsatuta daukate.

Gogoratu behar da Leizotz auzoan, egungo hilerrietik gertu kokatzen dela eremu historiko hori. Gotorlekua eraiki zen bertan I. Guda Karlistan 1840an, gain horrek balio estrategikoa zuela irudituta. Soldaduentzat defentsarako lubakiak eta kanoiak ezarri ziren inguruan, eta gerra amaitu ostean, agintari militarrek erakuntza guztia birrintzea agindu zuten.

“2000. urtean Burdina sortu eta lanean hasi ginenean bezala gaude, aitzurra eta pala eskuetan, besterik gabe”

LEITZARAN BAILARA

Leitzarango bailaran aspalditik daukate hainbat proiektu esku artean, poliki-poliki garatzen ari direnak, pazientzia, denbora eta borondatea kiloka jarriaz bidean. Horien artean, aipa daitezke Mustarreko burdinola, Txotaneko meatze esparrua eta Ollokiko ingurua (burdinola, zubia...). Leku horietan lur azpian egon daitezkeen objektu historikoak lokalizatzeko geodarraren teknika modernoa erabiltzeko asmoa daukate, besteak beste.

Bestalde, Olaberriako burdinola zaharrean kokatzen zen presaz gehiago jakiteko, ikerketa topografikoa egiteko asmoa ere azaldu du Burdinak. Otietako parketik gertu dago ondare historiko hori.

Azkenik, Zizurkilen Irizibariko karobia eta Berastegin garbitoki bat ari dira berreskuratzen. Bukatutzat eman litezkeen egitasmoen artean, Elduaingo Gokoetxe karobia aipa liteke. Joan den irailaren 30ean piztu zuten. Frantziar estiloko karobia hau ez da Tolosaldeko herri horretan egin duten lan bakarra. Iraganen, beste lau karobi berreskuratu dituzte: Allani, Kamioetxe, Gorrane eta Sales. Bestalde, Errotazar errota ere txukundu izan dute.

URTE BEREAN JAIOTAKOEN BAZKARIA



1967an jaiotakoek bazkaria egin zuten joan zen larunbatean, Gaztañaga sagardotegian. Irudian bilkurara hurbildu ziren herrikideak.

Udazkenean urte berean jaiotakoek hitzordu bat baino gehiago izaten da. 59ko kintoen bazkaria, esaterako, azaroaren 11n izango da.

Oinezkoen pasabideari lehentasuna eman diote



Aierbe etxearen pasabidea ibilgailuen pasabiderako itxita dago.

“Guztion segurtasuna dago jokoan” adieraziz, Udalak oinezkoen eta txirrindularien pasabideari lehentasuna eman dio Aierbeko pasabidea itxita mantentzeko orduan. Udaz geroztik itxita dago, eta horren aurrean hainbat herritar Aierbeko pasabidea ibilgailuentzat itxi izanaren aurka agertu da. Baita ehunka sinadura lortu ere. Udalak bigarren aldiz

aztertu, eta azkenean itxita mantentzea erabaki du.

Sinadura bilketaren eragileek ez dute uste gaia amaitutzat eman daitekeenik; “tamalgarrizat” jo dute EH-Bilduren jarrera, eta baita Ganemos eta IU-Irabaziren zinegotziena ere. Eragileek, “puntu eta kito ez baizik eta puntu eta apartekotzat jotzen dugu batzordean erabaki zena”.

Katxalinen kanpaina Andoaingo kaleetan



“Ez zaude bakarrik” aurtengo kanpainaren lelo nagusia da.

Joan zen larunbatean Andoaingo herrigunean Katxalin elkarteko hainbat kide dirubilketan ibili zen. “Ez zaude bakarrik” kanpainaren baitan, bularreko eta ginekolo-

giako minbiziagatik eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarte kontzientziazio kanpainan murgilduta dabilta egunotan.

Info: Katxalin.org



Katxalin bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarte da.

HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Giza-katea larunbatean, herri galdeketaren azken txanpan

Azaroko lehen igandean, Andoain Esan herri ekimenaren bitartez, andoaindarrek erabakitze eskubideari loturiko ariketa egiteko aukera izango dute. “Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko he-

rritarra izan?” galdera baiezkoarekin edo ezezkoarekin bozkatu ahal izango dute, egun osoan zehar Zumea plazan, Goikoplazan eta Juanita Alkain plazan ipinitako hiru bozkalekuetakoren batean.

Andoain Esan herri ekimena herri kontsulta egin ahal izateko azken lanetan murgilduta dago. Hiru bozkaleku egokitu behar dira, bertan lan egingo duten hainbat boluntarioen laguntzarekin. Egunean zehar, igandea girotzeko, ekitaldi ezberdinak izango dira. Eguna iritsi aurretik gizartea sentsibilizatzeko hainbat jarduera burutuko da. Lehena, giza-katea, larunbat honetan izango da. Goikoplazan hasi eta Kale Nagusia zeharkatu ondoren, Santa Krutz zubiraino iritsiko da. Eta handik giza-kateak Zumea plazako bidea hartuko du. Talogileak bertan izango dira, giza-katean parte hartu dutenen gosea arintzeko. Erraldoien parte hartzea ere ziurtatuta dago. Beraz, eguraldiak laguntzen badu, lagunartean edo familian hurbiltzeko hitzordua izango da.

AURRETIAZKO BOTOA EMATEKO AUKERA URRIAREN 26TIK AZAROAREN 4RA

Andoain Esan herri ekimenak botoa emateko aukera andoaindarren esku utzi nahi du, eta horretarako lanean aritu da azken hilabeteotan. Azaroaren 5ean botoa ematea ezinezkoa zaionari aldeztu aurretik botoa emateko aukera eskainiko zaio, Kale Berrian bertan duten egoitzan.

Hauxe ordutegia:

- **Urriak 26, osteguna:**
17:00-20:00.
- **Urriak 27, ostirala:**
11:00-13:00.
- **Urriak 30, astelehena:**
17:00-20:00.
- **Urriak 31, asteartea:**
11:00-13:00.
- **Azaroak 2, osteguna:**
11:00-13:00.
17:00-20:00.
- **Azaroak 3, ostirala:**
11:00-13:00.
- **Azaroak 4, larunbata:**
11:00-13:00.



Gure Esku Dagoren oharra Espainiako Gobernuaren iragarpenaren harira

Postontzia # Gure Esku Dago

“Espainiako Gobernuak Kataluniako errealitatea ukatzen jarraitzen du. Kataluniako gizartearen gehien-goak planteatzen duen auzi politikoa –etorkizunaren jabe izan nahi izatea– elkarriketaren bidez bideratu beharrean, auzia ukatu eta demokraziaren kontrako neurriekin erantzun du, marka guztiak hautsiz.

“Nazio espainiarren batasun zatiezina” printzipio demokratiko guztien gainetik jarri du Espainiako Gobernuak. Kataluniako herritarrek hauteskondeetan eta urriaren 1eko erreferendumean adierazitako borondatea mesprexatu egin du, Kataluniako herriaren nortasuna eta bere instituzioak iraindu egin ditu.

XXI mendeko demokrazia herritarren nahia erres-

petatzea da, herritarrei erabaki prozesuetan parte-hartzeko aukera eskaintzea, eta legea herritarren borondatearen arabera egokitzea. Aitzitik, Espainiako Gobernuak iragarri duen bezala, Katalunian herritarrek aukeratutako gobernu eta gainerako instituzioak ordezkatzea totalitarismoa besterik ez da. Kataluniako erreferente informatibo nagusia den TV3 telebista publikoaren kontrola eskuratu nahi izatea totalitarismoa da. Herriaren sostengua eta nazioarteko komunitatearen prestigioa irabazita dituen Mossos D'Esquadra instituzioaren kontrola bereganatu nahi izatea totalitarismoa da.

Gaur inoiz baino gehiago aldarrikatu behar da erabakitze eskubidea printzipio demokratiko gisa. Komu-

nitate politiko batek zilegitasun osoa du bere etorkizun politikoa erabakitzeko. XXI mendeko demokraziaren ezinbestekoa da herritarren borondate hori bideratzeko eta gauzatzeko mekanismoak martxan jartzeta.

Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak hartutako neurri arbuia garri eta antidemokratikoen aurrean, Gure Esku Dagok elkartasuna eta begirunea adierazi nahi dizkie Kataluniako herriari eta bere instituzioei. Halaber, deitu nahi ditu euskal herritarrek elkartasun adierazpenak areagotzera eta erabakitze eskubidearen aldeko ekimenetan parte hartzera. Etorkizuna gure esku dago. Elkarrekin lortuko dugu”.



[AIURRI, KOMUNITATEA]

Galdeketaren informazio guztia

aiurri.eus gunean www.aiurri.eus/Komunitatea/andoainesan



HERRI GALDEKETA ANDOAINEN

Botoa emateko hiru gune azaroaren 5ean



ZUMEA PLAZA



JUANITA ALKAIN PLAZA



GOIKOPLAZA

Goizeko 09:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak arte herritarrek botoa emateko aukera izango dute Andoainen, herri-gunean ipiniko diren hiru bozkalekuetan.

Nork du botoa emateko eskubidea?


Azaroaren 5ean 16 urte edo gehiago duenak botoa emateko eskubidea dauka. Baldintza bakarra dago: Botoa eman ahal izateko Andoainen erroldatuta egotea.

Botoa emateko onartuko diren agiriak

Nortasun agiria, pasaporte, gida-baimena, EHNA Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA), jatorrizko estatuak jaulkitako nortasun txartela edo pasaporte.

Andoain Esan taldearen ohar garrantzitsua: "Aurkezturiko identifikazio-agiriak helbiderik ez badu edo beste herri batekoa badu, 2017ko errolda agiria aurkeztea behar-beharrezkoa izango da".

Hiru ekitaldi Basteron, datorren astean



SOLASALDIA



HITZALDIA



MAHAI-INGURUA

Urriak 30, astelehena. 19:00. Bastero. Julen Telleria eta Andoaingo gazteak
Gaztea irratiko nahiz Euskal Telebistako aurkezlea Andoainera etorriko da erabakitze eskubidearen inguruan bere esperientzia eta bizipenak azaltzera. Gazteei zuzenduriko ekitaldia da.

Urriak 31, asteartea. 19:00. Bastero. Anjel Oiarbide
Euskaraz eta gaztelaniaz hitzaldia eskainiko du Anjel Oiarbide Gure Esku

Dago ekimeneko bozeramaileak. Erabakitze eskubideaz, Kataluniaz hitz egingo du andoaindarren aurrean.

Azaroak 2, osteguna. 19:00. Bastero. Kike Amonarriz, Oihana Iguaran, Beñat Sarasola

Udaberrian Tolosaldean hainbat herri galdeketa egin ziren eta hiru solaskideak Gure Esku Dagoren ekimeneko partaide aktiboak izan ziren. Moderatzailea Aina Loarte izango da.

BERTSOLARITZA ETA ROCK MUSIKA AZTERGAI DITUEN LIBURUA

Andoaingo pasarteak Alberto Irazuren liburuan

Alberto Irazuk Andoaingo Gaztetxe zaharraren inguruko mugimendua liburuaren sorburuan kokatu zuen. Urte haietako kronika bizia jaso du liburuan, hainbat erreferentzia bilduz bertan: Peste

eta Karkaxa fanzineak, Ximorra eta Bap musika taldeak, Sorozabal, Oiartzabal, Aristorena, Izeta, Olazabal, Lagala eta Petrikorenaren bertsoak... Jarraian, liburuko pasarteetako bat:

“AITA ZABALA EZ ZEN ANDOAINGO GAZTETXEAN IBILI”

1984ko azaroaren 24a: Gazte Asanbladak Ankoras kaleko eskola zaharra okupatu du. Lokala txukundu eta berehala, kontzertuak antolatzen hasi dira. Urteak joan eta etorri, Euskal Herriko eta atzerriko ehunka taldek joko dute bertan, eta rock mugimenduaren epizentroetako bat bihurtuko da.

1985eko otsailean, Peste izeneko fanzinean lehen zenbakia kaleratu dute gaztetxeok: BGK, Discharge eta Holly Dolls hardcore taldeei buruzko artikulak, Familia Iskariote taldeari egindako elkarrizketa, okupazioaren aldeko eta soldaduskaren kontrako aldarriak, komikiak, esloganak, hizkera eta sinbologia... 80ko hamarkadako kontrakultura girotan perretxikoak bezala ugaritutako fanzinearen ezaugarri guztiak ditu Andoaingo Gazte Asanbladak ondutako zenbaki berriak baina badakar horrelakotan beste inon topatuko ez duzun zerbaite ere, fanzinearen azalean bertan iragarri: bertsoak!

Fermin Lagala andoaindar presoak Herrera de la Manchako espetxetik bidalitako aleak dira, eta zer diren gauzak, Joseba Sarrionaindia eta Iñaki Pikabeak Martuteneko kartzelatik ihes egin eta Kortatuk “Sarri, Sarri” abestiarekin hariak berak dantzan jarri baino hilabete batzuk lehenago argitaratuko dira. Hauxe aleetako bat: *Papera aurren lapitza eskun / hemen nago eserita / bizitza aspaldi hontan daukat / nekatua eta eria / baina ez pentsa nerekin denik / oraindakan miseria / ta zuek sortu didazuten / horrelako aberia / bertso pare batekin nator ni / Andoaingo gazteria.*

Punk kutsuko fanzine batean inoiz argitaratutako lehen bertsoak? Seguru asko. Hala ere, ez da hor amaitzen Andoaingo gaztetxearen eta bertsoaren arteko harremanarena. 1985eko azaroan, gaztetxearen lehen urtemugan, bertso saioa prestatzea erabaki du Gazte Asanbladak eta **Jokin Sorozabal**, **Joxe Oiartzabal**, **Pablo Joxe Aristorena** eta **Joxe Mari Izeta** gonbidatu dituzte. Gaztetxeok bat-bateko aleekin konformatu ez eta bertso saioaren kronika argitaratuko dute 1986an, Peste fanzinearen bigarren zenbakian. 80ko hamarkadako fanzine batean argitaratutako bertso kronika bakarra da, eta geroztik ere gutxi izango dira horrelakoak... (...) Bertsolaritzaren imajina-



Alberto Irazu “Rocka puntua!” liburuaren egilea da.

rio kolektiboak baserrietako ganbara zaharretan irudikatzen ditu inon egin daitezkeen aurkikuntza harrigarrienak. Iruiteria horrek badu bere protagonista ere: baserri baserri ibilita, zenbat bertso-paper ez ote zituen deskubritu Aita Zabalak! Hark ederki zekien merkatu egunetan erositako altxor horiek nonbait egon behar zutela, hauts artean; baina nola imajinatu kontzertuetan saltzen ziren paperen artean ere gon zitekeela altxorrik?

Leitzarari eta Oria ibaiek egiten duten tokitik lau pausora zegoen Andoaingo gaztetxe zaharra; hondeamakinek bota zuten, etxe berriak egiteko. Norbaitek nahi balu, idazteke dago hangoa.

Andoaingo baserrietan bai akaso, baina Aita Zabala ez zen gaztetxe zokoak miazten ibili. Ezin jakin zer egingo zuke-

en paper puskok eskuartean ibili balitu, hauspotu ez behintzat!

GAZTE TALDE BAT GERA ETORKIZUNIK GABE

Zenbat bertsolari eta zenbat bertsoren berri galdu ote da, haizeak betirako eramanda, horien lekukotzak inon idatzita utzi ez eta ondorengo belaunaldiei transmititu ez zaielako. Makina bat horrelako.

Bada, horixe bera gertatu da hainbat musika talderekin, bere garaian kontzertuak eman, ingurumari batzuetan eza-gun samar egin eta azkenean maketa edo diskorik kaleratu gabe desagertu zirelako. 80ko hamarkadan ez zegoen gaur egungo erraztasunik zerbaite grabatzeko, eta talde asko horrelaxe joan ziren, beren arrastoa inon utzi gabe. Hain justu, ezer ofizialik argitaratu gabe desa-

gertutakoa talde horietako bat izan ziren Ximorra andoaindarrak.

Gaztetxea okupatu baino lehenago sortu zen Ximorra. Izen ezin egokiagoa aukeratu zuten euskarazko punk talde batentzako, eta kontzertuak ere horrelaxe hasten zituzten, kantariak “Ximorra!, tra! tra! tra! tra!” garrasi eginda eta jendeari metrailadorez tiro egiteko imintzioka. Garai hartan ez ohikoa izan arren, euskara hutsez kantatu zuten hasieratik, bertsoak punk erara kantatzea zen beraien ezaugarri nabarmena, eta nola egingo zuten bestela?

Punka teknika ezaren aldarria bada, horixe ziren bertso horiek: herrenak, baldarrak, zuzenak, gordinak. Poto egiten zuten tarteka-marteka. Juan Joxe Petrikorenarenak dira bertso horietako asko, baina ez guztiak. Adibidez, Fermin Lagalak Herrera de la Manchako espetxetik bidalitako eta Peste fanzinean argitaratutako bertsoetako bat ere musikatuz zuten “Mundu zikin hontan” izeneko kantuan.

Andoain inguruan eta Gipuzkoako punk giroetan ospea hartuta, “Gazte talde bat gera” bihurtuko da beren abestirik ezagunena, Taldea grabaziorik kaleratu gabe bananduko den arren, Andoaingo gaztetxe zaharrean ibilitako askok buruz kantatuko dizute gaur egun ere bertso-abesti hau: *Gazte talde bat gera / etorkizun gabe, / inora ezin joan / ta kallean gaude / lanarik ez baitegu / inorgure alde, / udaletxeko jaunak / ez dira debalde. / Baina gazteria / ez dago konforme / Andoaingo herrian / zergatikan gaude. / Goazen-goazen hemendik / sobranterte baikaude / Bota Ximorra!*

Eta noski, Andoaingo gaztetxea ia bizileku izanda, skuat edo okupazio mugimenduari ere kanturen bat egin behar. Errobi eta Hertzainak-en hitzek bere garaian lekukotasuna utzi zuten bezala, 80ko hamarkadako giro baten aldarria da “Skuataren garra” abestia: *Gaztediak Andoain / bildu du indarra. / Batzuren gogoa / besteren beharra. / Gaztetxe hontan daukagu / denok egin beharra / lanean arituaz / sartu zaigu arra. / Lortuko dugula / giro bakarra / gurea duguna hartuz / zabalduz gure indarra / herri guztitan behar dugu / skuataren garra.*

Ezin jakin nora helduko ziren zerbaite grabatu balute, baina zuzenean sekulako lehergailua zen Ximorra, tra! tra! tra! tra!”

BERTSOLARITZA ETA ROCK MUSIKA AZTERGAI DITUEN LIBURUA

Bertsoa eta rocka, uztartuta eta aztertuta

Alberto Irazu andoaindarrak 'Rocka puntua' liburuaren aurkezten du Donostian, joan zen ostegunean. Angel Mari Irigarai, Joxerra Gartzia eta Andoni Egaña izan zituen ondoan, rockak eta bertsolari-

tzak gaurdaino jasan duten uztartze prozesua aztergai duen saiakera aurkezteko. Pamiela argitaletxeak argitaratuta, Durangoko azokan nabarmenduko den liburuetako bat izango da.

Argitaletxeko arduradun **Joxe Angel Irigarai** hartu zuen lehenengo hitza. Poza agertu zuen jende ugari bildu izanagatik aurkezpenera; izan ere, Irazuren senide eta lagunak ez ezik, Andoaingo gaztetxe zaharreko kide ugari ikus zitezkeen publikoan nahasita. Liburuaren "mami biziki interesgarrikoa eta hizkuntza aberatsekoa" zela azpimarratu zuen. **Joxerra Gartzia**ren ahotik ere laudoriozko hitzak entzun ziren. "Ikuspegi komertziala alde batera utzita, merezi duen liburu da. Kurioso da, baina lortzen du erraza ez dena: informazio baliagarria irakurketa gozagarriarekin uztartzea. Unibertsitate-tik nator ni, eta kokoteraino nago saiakera akademiko tristeekin. Irazuk neurritz kanpoko izugarritzko irrikaz idatzi du, eta eskertzekoa da bere emana gaurko prosa tristearen panoraman".

"BATETIKAN KORROXKA..."

Andoni Egaña izan zen hurrena liburuaren irakurketak eragin dizkion gogoetak azaltzen. Bera liburuak azaleko argazkian ageri da, orain 28 urte sagardotegi batean atera zena Peñagarikanorenkin eta Negu Gorriak taldeko kideekin batera, eta umoreari ekin zion lehenengo eta behin: "zeure burua ikusteak sustoaz gain *poxa* ematen du. Poza, argazkia ikusteko aukera daukadalako makina bat urte pasa arren".

Bera rocka Euskal Herrian zabaltzen hasi zen garaikoa dela aitortu zuen, "garai nahasian hazia", eta gazte garaiko pasadizoa kontatu zuen: "60ko belaunaldikoa naiz, eta beraz, rocka ez zitzaidan hain arrotza; ez naiz Lazkao Txiki edo Joxe Agirreren belaunaldikoa. Aitortu behar dut 17-18 urterekin ez nintzela bertso zalea; ni bertso zaletu, 1980ko Errege eguneko goizean egin nintzen, Amuriza txapelketan kantari entzun nuenean, hain zuzen. Urtebete lehenago, gogoan dut koadrillako lagunak nola joaten ginen Zarausko tabernari zaharrenetakora, Xipri-ra. Paretan bazegoen kuadro bat, Bazarren bi bertso oso klasikoekin, "Dambolina eta txistua" izenburua zeramatenak. Beste doinuak ez geneukalako, edota kontrasteak grazia ematen zigulako, baina kontua da ardo batzuk edan eta gero koadrillako bertso haiek kantatzen genituela; baina hori bai, Errobiren *Telebista* abestiaren doinuarekin!".

Urtetan aurrera, bertsolari-tza eta rocka uztartzen hasi zireneko garaiak hartu zi-



Egaña, Irazu, Gartzia eta Irigarai liburuaren aurkezpen ekitaldian.

tuen gogoan Egañak, eta Negu Gorriak taldearen bertso hop-a jarri zuen mugarri gisa: "Fermin Muguruzak eta ingurukoek senez lotu zituzten bertsolari-tza eta rocka, *Bertso hop* grabatu zutenean. Izan ere, hiru urte lehenago, 1986ko Euskal Herriko txapelketan, Peñak eta biok kantatu genuen bertso-saioa gero abestira eraman zuten. *Bertso-hop* plazaratzearekin batera kalean aldaketa nabaritu genuen; ordura arte nahiko anonimoak ginen, baina handik aurrera, edozein etor zitezkeen gugana kantari *batetikan korroxka, bestetik erreña...*, behin ilunduz gero batez ere".

80ko hamarkadaren hondarretik aurrera bertsolari-tzak bizitu zuen garapena ulertzeko, hiru-lau faktore aipatu zituen eragingarriak izan zirenak: "Bertsozaleen Elkartearen sortzea, bertso eskolak, Hitzetik Hartzera ETBko saioa eta Negu Gorriakentzako Bertso hop kantua. 90eko hamarkadatik aurrera, 70eko urtetan jaiotako bertsolariak hasten dira plazaratzen, eta horiek kantatzen da horiek harreman estuagoa daukatela rockarekin guk baino".

Eskerrak eman zizkion Irazuri azkenik Egañak, bertsolari-tza eta rockaren arteko lotura egin izanagatik. "Bertsoa ez da monolitikoa, ezin da hartu ukiezintzat, beste edozein jarduerarekin nahastu litekeen inprobisazio tresna gisa baizik".

ANDOINGO GAZTETXE ZAHARRA, LANERAKO PIZGARRI

Alberto Irazu egileari eman zioten hitza azkenik aurkezpen ekitaldian, honek luze eta sakon azaldu zezan zer jaso nahi izan duen eta zer jakinarazi 'Rocka puntua!' liburuaren idazterakoan. 80ko hasieran irekitako Andoaingo gaztetxea eta horrek gazteen artean sortu zuen giroa izan zuen hizpide hasieran, liburuaren idazterakoan zerk animatu ote zuen galderari erantzun nahian. "Aurkezpen honetara etorri diren hainbatentzera, neu ere testigu izan nintzen gaztetxean zer nolako esperimenduak egin ziren bertsolari-tza eta rocka lotuz. Gogoratzen naiz BAP taldeak nola hasten zituen bere kontzertuak, lauko txiki bat kantatuz: "Ari gerala, ari gerala, ari gerala egiten. Biharko partez, etziko partez, datorren urtera arte"; Andoaingoa zen bigarren talde batek ere, Ximorrak, bazeukan ohitura bertsoak sartzeko bere emanaldietan. Ez hori bakarrik; kontrakulturaren ezaugarri guztiak (hizkera, estetika, aldarrikapenak...) zituen Peste fantzineak bertsoak argitaratzen zituen. Alegia, bazegoela gogo berezi bat bertsoa eta gaztetxe giroa batzeko".

Behin lanean jarrita, dokumentazio lanari ekin zion. Aita Zabalaren Auspua sailari heldu zion derrigorrean, eta baita

harri bitxiak topatu ere. "1964an Joxe Mari Iriondok Uztapideri jarritako puntuari nola erantzuten dion, horrek deitu zidan arreta. Hona puntua: *Ikasi al dituzu / rock and rolla eta twist?* Eta hara Uztapideren erantzuna: *ez degu izan, aizu, / guk orrenbeste bist, / galdetu bear zendula / ez liteke sinist, / naikua pena onek / neri ematen dit*. Uztapidek pena agertzen du, zergatik? Euskal gaztediak bere egin dituelako Euskal Herri tradizionalarekin zerikusirik ez duen mundutik datozen musika estilo horiek".

Uztapideren 1964ko erantzunetik gaurdaino eman den eboluzioan bi parabola sumatzen ditu Irazuk. "Atzeretik zetozen doinu, mugimendu, estetika... horiek arrotz izatetik, kondentzetetik eta *er-ne horiekin!* esatetik, gaur egun bertsolariak pop-rock doinuekin bat-batean kantatzen pasa gara. Bigarren parabolak, berriaz, erakusten digu bertsolariak oholtza gainera rock zale bihurtuta igo dela".

Irazuk argi dauka zer dela eta eman den bi parabola horien garapena: "bertsolari-tzak, euskarak berezkoa zuen espazio hegemoniko horrek, urbanizatze, hiritartze eta modenizatze prozesua bizitu du. Rockak eta bertsoak akelarrea egin baldin badute, euskara rockean sartu delako da".

[Aurkezpenaren bideoa: Aiurri.eus]

Udal liburutegia zabaldu zutela 55 urte bete dira



Liburutegiko egungo liburuzainak, Judith Alzola, Laia Rius eta Fatima Errasti, horien aurretik liburuzain izan zen Kontxi Camposekin batera.

1962an ireki zituen atea Andoaingo liburutegiak, eta egungo langileek urriaren 24an ospatu zuten urtemuga, Liburutegien Egunarekin bat eginez. Bisitari ugari jaso zituzten egunear zehar. Eta liburuzainek, Judith Alzolak, Fatima Errastik, Laia Riusek eta Doltza Laskurainek tradiziozkoa diren tarta eta bizkotxoak partekatu zituzten gutxienez.

Judith Alzola liburutegiko arduradunak adierazi zuenez, erabiltzaile ugari hurbildu zen liburutegira, eurei zorionak

ematera asko eta asko. "Gehienek eskerrak eman zizkiguten zerbitzu publikoa eskaintzeagatik". Oso pozik daude liburuzainek, izan ere ospakizunak balio izan die ohartzeko erabiltzaileek zenbat estimatzen duten liburutegia eta bertan eskaintzen zaien arreta. Nolanahi ere, gehientsuenek galdera berbera helarazi zieten, Alzolaren esanetan: ea noiz gozatu ahal izango duten liburutegi berri eta handiago batekin, Andoaingo herriak merezi duenaren parekoarekin.

Brahim Dahane giza eskubideen aldeko aktibistari harrera

Giza eskubideak Saharako lurralde okupatueta



Udal ordezkariak Brahim Dahane Saharako Giza eskubideen aldeko aktibistari ongietorria eman zioten. Irudian, alkatearen ondoan.

ASVDH Giza eskubideen erraketa larrietako biktimen elkarte sahararrek kide da Brahim Dahane. Elkarte Marokoko kartzelan preso egon ondoren askatasuna lortu duten sahararrek osatzen dute, eta Marokoko Saharako lurralde okupatueta ezartzen duen errepresio politikoa salatzea, preso daudenen askatasuna eskatzea eta desa-

gertutako inguruan egia jakitea ditu helburu. Dahane bi aldiz egon da preso Marokoko kartzeletan, eta udaletxeko harrieran egin dioten ekitaldian adierazi zuenez, salaketa zehatzik gabe eduki zuten gatibu bi txandatan.

Arratsaldean, Basteron hitzaldia eskaini zuen "Mendebaldeko Saharako okupazioen

aurkako eta giza eskubideen aldeko borroka" izenburupean. Hitzaldian zehar Marokoko okupatuta dauzkan Saharako lurraldeetan bizi diren biztanleen bizimodua azaldu zuen. Salbuespen egoera da, denboran zehar luzatzen ari dena. Gizarte mailako ikuspegiari heldu zion, testuinguru historiko eta politikoa alde batera utzi gabe.

Nafarroa hegoaldeko euskararen normalizazioak hauspoa behar du, lagun gaitzazu



orburuak
zainzuriak
pikillo piperrak
ardoa
ozpina
melokotola
almibarrean
pasta

arroza
pikillo piper
mamia
patxaran pastak
mollineritoak
tomatea
olioarekin
teillak

ERRIGORA

e
u
s



orburuak
zainzuriak
pikillo piperrak
ardoa
ozpina
melokotola
almibarrean
potxak

aran
marmelada
mahats zukua
atmendrak
oliba olioak
pikillo
salsa
kardoa



KIROL ALBISTEAK

Datorren azaroaren 4an Andoaingo Bastero kulturgunean

Txirrindulari gazteei zuzenduriko mahai-ingurua



Mikel Iturria.

Andoaingo txirrindulari eskolak eta Allurralde kirol patronatuak "Txirrindulari gazteak profesional izatearen bidean" mahai-ingurua antolatu du, profesional mailako korrikalari eta



Ane Santesteban.

entrenatzaileekin. Santesteban, Iturria eta Odriozola iragarrita daude. Maila handiko solasaldia, beraz.

Datorren azaroaren 4an izango da, larunbatarekin, Bas-



Jon Odriozola.

teron, arratsaldeko 17:30ean hasita. Sarrera doakoa da, baina antolatzaileek alde zuzeneko izena emateko aholkua luzatu dute info@andoaingo.eus e-postara emaila idatziz.

Aurreko asteburuan bertan behera geratu zen

Larunbat honetan, irteera Zanpatuz taldearen eskutik

Astebeteko atzeparenarekin bada ere, Zanpatuz mendi elkarrekin urrirako aurreikusia zuen irteera larunbat honetan egingo du. Taldetxo osatuta eta eguraldiaren aurreikuspena hain txarra ez dela ikusita, irteerarekin aurre egitea erabaki dute.

Zuberoa aldeko Etxekortia mendira abiatuko dira, bertakoentzat nahiko mendigune ezezaguna. 1.194 metroko garaierakoa, eta bertako tontorretik Orhymendi, Auñamendi eta beste gertu-gertu ikusten dira.

Irteera eguneko izango da. Goizeko 07:00etan autobusa irtengo da Matxo tabernatik, eta Baxe Nafarroako Donaxiti-Ibarreraino joan, herri hartako Arla auzora, hain zuzen ere. Hamabost lagun baino gehiagok izena emana zuten aste hasieran, irteerarekin aurrera egitea nahikoa mendizale, beraz. Ibilaldia zailtasun ertaine-



Larunbat honetan goizeko 07:00etan autobusa irtengo da Matxo tabernatik Zuberoa aldeko Etxekortiarra

koa da, joan-etorria 6-7 ordukoa baita, eta gainditu beharrek desnibel positiboa 1.000 metrotik gorakoa.

Bidoize ibaia jaiotzen den

kobatik pasa ostean, gailurrera igo eta ibilbide zirkularra osatuko da, autobusera bueltatzeko. **Koldo Tapia** izango da irteerako arduraduna. Gaez irten, eta gaez bueltatu, itzulera 20:00ak alderako espero baita. Norberak bere bazkaria eraman beharko du motxilan, eta antolakuntzak neguko arropa eramatea gomendatzen du, urri bukaeran 1.200 metrora hotz egin baitezake.

Ganbara saski taldeko seniorren hasiera bikaina

AURREKO JARDUNALDIA:

Larramendi 49-62 Ganbara SenM
Andraitz 35-66 ganbara KadM
Ganbara InfM 12-35 Bergara
Saillapena:
1. Zarautz 10 puntu
3. Ganbara 9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK:

Ganbara SenM-Bosteko
19:15 Ubitarte.
Urriak 28, larunbata.
TAKE-Ganbara KadM
10:30 Usabal.
Urriak 28, larunbata.

Leizaran eskubaloit taldea

Senior mutilak

Legazpi 32-22 Leizaran Ernio

Senior neskak

Egja Kopidin 22-19 Leizaran

Jubenil mutilak

Legazpi 31-29 Leizaran

Jubenil neskak

Leizaran 23-18 Legazpi

Kadete mutilak

Leizaran 34-25 Elgoibar

Bera Bera 15-16 Leizaran Horia

Kadete neskak

Aiala C 18-24 Leizaran Urdina

Ereintza 16-21 Leizaran Horia

Infantil mutilak

Leizaran Urdina 9-21 Pulpo

Leizaran Horia 8-29 Pulpo

Infantil neskak

Leizaran Urdina 20-40 Bidasoa A

Leizaran Horia 19-37 Egja 3

OHARRA: BAZKIDE TXARTELA

2017/18 denboraldiko bazkide txartela berritzeko edo bazkide berri izateko kanpaina martxan dago: info@leizaraneskubaloia.com

Urnieta KE taldea iazko maila erakusten ari da

Tolosa 19-32 Urnieta SenM

Erosotasun handiarekin lorturiko garaipena. Iazko bide beretik doazela dirudi, martxa onean. Saillapenaren lehen postuetan daude lehen bi partidak jokatu eta gero.



Euskalduna liga hasieran lehen postuetan ari da

Seigarren jardunaldia:

Euskalduna 0-0 EAS08

Mundarro 2-2 Urnieta

Zazpigarren jardunaldia:

Billabona-Euskalduna

Larunbata, 28. 17:00. Arratzain.

Urnieta-Allerru

Larunbata, 28. 16:00. Urnieta.

Saillapena:

1. EAS08 14 puntu

2. Euskalduna 12 puntu

11. Urnieta 7 puntu

Jubenil mailako partidak

Saillapena, 3. multzoa:

1. Euskalduna A 18 puntu

Saillapena, 5. multzoa:

1. Urnieta A 15 puntu

Asteburuan:

Euskalduna A-Astigarraga

Larunbata, 28. 17:00. Ubitarte.

Urnieta B-Inter

Larunbata, 28. 18:00. Urnieta.

Amara Berri-Urnieta A

Igandea, 29. 15:30. Martutene.

Urnieta KE pilota

TRINKETEA

Julen Loitegi, Gurutzealde Astigarragako pilotariarekin batera, Euskadiko elite txapelketako finala jokatuko du. Loitegi bera **Eñaut Esnaola**arekin batera bikain ari dira Iparaldeko txapelketan.

GOMAZKO PALETA, SENIORRA

Real Sociedad 25

Urnieta 15


Pavon-Pérez de Arenaza.

Loiolatarra 25

Urnieta 11

Jon Iturbe- Unai Arozena.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publicitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 6.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatazaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
- Detroit**
Larunbata, 28. 19:30, 22:00.
Igandea, 29. 19:30.
Astel., 30. 19:30, 22:00.
- La Lego Ninjago**
Larunbata, 28. 17:00.
Igandea, 29. 17:00.

Urnietan

- Calabacin**, haurrentzat.
Azaroak 5. 17:00. 4 euro.
- Canta**, haurrentzat.
Azaroak 12. 17:00. 4 euro.

Musika

- Andoain, Bastero**
- Benito Lertxundi:** 50 urteko ibilbidea ospatzeko kontzertua eskainiko du.
21:30 18 euro.
Abenduak 1, ostirala.

Hitzaldia

- Urnietan**
- Eneko Sanz Aranzadiko historialariaren eskutik. Gatazka belikoa bera baino gehiago, herritarrek 1936ko kolpe militarren ondorioz herritarrek jasan zuten sufrikarioa aztertzea du xede.
19:00 Sarobe.
Urriak 27, ostirala.

Ekitaldia

- Andoain**
- Goiburu bailaran, Ortzaikako karobia piztuko dute. Burdinak gonbite irekia egin du.
Azaroak 4 eta 5.

Farmaziak

- Andoain**
- Ansa:** Ondarreta, 8.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Urriak 28 eta 29.

Urnietan

- Tanco:** Idiazabal, 39.
Gauetz: Etxebeste (Hernani).
Urriak 28 eta 29.

Barrikotea

- Andoain**
- Andoaindarra elkartean, bazkari herrikoa: txorizoa, askotariko frijituak, bakailaoa piperrekin, txahal-saihetsa, gazta, intxaurrek, kafea, sagardo-barrikotea.
14:00 Barrikotea.
Urriak 28, larunbata.

Antzerkia

- Urnietan**
- “Kalean otso, etxean uso” haur antzerkia.
Urriak 29, igandea.
17:30. Sarobe. 3 euro.

Andoain

- “Amour” haur ikuskizuna.
Azaroak 12, igandea.
17:00. Bastero. 4 euro.

Dantza

- Andoain**
- “Harri, orri, ar” Dantzaz taldea.
Azaroak 3, ostirala.
21:30. Bastero. 10 euro.

Bazkaria

- Andoain**
- 59ko kintoen bazkari eguna. Izen-ematea 60 euroko diru-sarrerarekin egin behar da. Kutxabank: ES73 2095 5022 18 1060843686.
Epea: Azaroak 8.
Bazkaria: Txertota jatetxea.
Azaroak 11, larunbata.

Ipuina

- Andoain**
- Storytime, ipuin kontaketa saioa 3-7 urtekoentzat.
18:00 Liburutegia.
Urriak 27, ostirala.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- “Palimpsesto”, hainbat artisten eskutik.
Azken eguna: Azaroak 11.

Galdeketa

- Andoain**
- Andoain Esan ekimenaren eskutik, herri galdeketa Andoainen. Hitzorduak:
Urriak 28, larunbata:
Giza-katea.
12:00 Goikoplaza.
Urriak 30, astelehena:
Gazte solasaldia Julen Telleria telebista aurkezle eta irrati esatariarekin.
19:00 Bastero.
Urriak 31, asteartea:
Hitzaldia elebitan Anjel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko buruzagiarekin.
19:00 Bastero.
Azaroak 2, osteguna:
Mahai-ingurua Kike Amorriz, Beñat Sarasola eta Oihana Iguaranekin.
19:00 Bastero.
Azaroak 5, igandea:
Herri galdeketa Andoainen. Boza emateko guneak: Goikoplaza, Juanita Alkain plaza, Zumea plaza.
09:00-20:00.

Mobilizazioa

- Eskualdea**
- Erraustegia gerarazteko “Barraskilo operazioa”.
17:30 Makaldegia.
18:00 Autokarabana De-cathlon paretik.
18:45 Karrikan, Fierro parean, bizikleta martxa.
Urriak 26, osteguna.

Ospakizuna

- Urnietan**
- Gipuzkoako Odol-emaielen elkartek intsigniak eta diplomak banatuko dizkie Andoaingo eta Urnietako hainbat kideri, Oianumen egingo duten ekitaldian.
13:15 Odol-emaielen herri-erakunde.
13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.
14:30 Bazkaria.
Urriak 29, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Aupa **Aiora!** Dagoeneko 7 urte gure artean, ze poza! Zorionak bihotza! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Unaxek azaroren 1ean, 7 urte beteko dituz. Muxu potoloak etxekoan partetik!

URNIETA


ZORIONAK



Urriaren 31n 12 urte beteko dituz, **Alex**. Zorionak eta eguna disfruta ezazu. Etxekoak.

URNIETA

ZORIONAK



Azkenean 9 urte egin dituzu, zorionak **Hegoi**. Eutsi zure alaitasunari eta irribarrearri!

URNIETA

MERKATU TXIKIA # LAN ESKAINTZA

Zaintzailea behar da, neska edo mutila, eguerdian, astelehenetik ostiralera bi haur zaintzeko. Andoainen: **650 34 11 08**.

“Kalean otso etxean uso” urriaren 29an, Saroben



Igande honetan, 17:30ean hasita, Patata Tropikala antzerki taldeak “Kalean otso etxean uso” antzezlan eskainiko du. Sarrerak 3 eurotan salgai daude Saroben.

Sinopsia: “Hiru Txerriak ez desagertu dira! Gertaerak ez daude batere garbi, baina otsoak desagertarazi dituela dirudi. Herri guztiak otsoa errudun dela dio”.

